

GIG 05

MUTRIKUKO SEDIMENTU SINTEKTONIKOAKBALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **1,88**KALTEBERATASUN-MAILA: **2****GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA**

Sekzioak 50 metroko lodiera du, eta beheko unitateetako harri-koskorrez osatutako brexa polimiktiko batez eratuta dago nagusiki. Formazio konplexu eta berezi hau Goi Albarrean Mutriku inguruan izandako sedimentazio sintektonikoaren eraginez sortu zen, eta gero, Deba formazioko gainaldeko hareharri-turbiditek fosildu zuten.

Formazioaren barruan, angelu handiko bi etenune angeluar daude, eta haien nahiz klasto brexoidetik eta egitura tektonikoek garbi adierazten dute Mutriku inguruko geruzak hego-ekialderantz okertu zirela Goi Albarrean, eta urpeko sinklinal bat eragin zutela (Aitzetako sinklinala), Mutrikuko failaren jarduerari erantzunez (failak ipar-mendebaldetik altxatu zituen geruzak). Geruzak altxatu ahala, ezegonkortu eta zatitan hautsi ziren; zatiak maldan behera erori ziren sinklinalaren nukleorantz, eta han, maila estratigrafiko modernoagoetan birsedimentatu ziren.

GIG hau oso garrantzitsua da mundu-mailan, eta adituak hura aztertzen ari dira oraindik ere. Oso berezia delako nabarmentzen da, batik bat.

NOLA BERTARATU

Alkolea lurmuturrera iristeko, izen bereko hondartzatik itsaslabarrean zehar oinez joan behar da; hondartzara joateko, berriz, Deba eta Mutriku artean bidexka bat abiatzen da N-634 errepidetik.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo itsasotik.



Buztin albarretan bildutako bloke handia; blokeak etenuneak ditu.

**EZ DAGO KOKALEKU
ZEHATZA EMATERIK,
ESPOLIAZIOA GERTATZEKO
ARRISKUA DAGOELAKO.**



Sedimentazio sintektonikoaren ondorioz sortutako brexa polimiktiko eta desordenatua, gertutik ikusita.